

URRETXU-ZUMARRAGA / Félix Marañak 'Oteiza tiembla' dokumentala eskainiko du

Poliki-poliki, Urretxu eta Zumarragako Udalek abian jarritako Liburuak plazara! ekimena aurrera doa.

Asteartean, helduentzat antolatu den ipuin kontaketa ikastaroko bigarren klasea izan zen eta bihar, berriz, Félix Maraña idazle donostiarraren Oteiza tiembla dokumentala izango da ikusgai Urretxuko Labeaga aretoan: 19.00etan, gazteleraz eta, 20.00etan, euskaraz. Aurkezpenean eta proiektzio ondorengo solasaldian Maraña berak eta Jose Luis Padron idazle urretxuarrak parte hartuko dute.

Datorren astean ere hainbat ekitaldi izango da. Asteartean ipuin kontaketa ikastaroko azkenaurreko klasea izango da eta, ostiralean, Enrike Zelaia: infernuko hauspoa liburua aurkeztuko da, 19.00etan, Urretxuko udal liburutegian. Liburu hau Javier Ramos musikari eta kazetari zumarragarriak idatzi du. Aurkezpen ekitaldian Ramosek eta Enrike Zelaiak parte hartuko dute.

Bukatzeko, ekainaren 6an ikastaroko azken klasea izango da eta, biharamunean, helduentzat ipuin kontaketa saioa izango da: 19.00etan, Zumarragako udal liburutegian. >a.z.